

Iruñeko
Lehiaketa
2020



HAUR LITERATURA LEHIAKETA



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

IPUIN

A LEHEN HEZKUNTZAKO – 1. ETA 2. MAILAK

1.SARIA
“KANGURO TXIKIA”

Iker Orzaiz Íñiguez
Amaiur Ikastola

2.SARIA
“SORGIÑAREN ERRATZA”

Nerea Orozko Amatriain
Amaiur ikastola

3.SARIA
**“IKASTAROKO FUTBOL
PARTIDU DIBERTIGARRIENA”**

Iñigo Iribarren Idiazabal
Jaso ikastola

B LEHEN HEZKUNTZAKO – 3. ETA 4. MAILAK

1. SARIA
**“NIRE IRAKASLEA
SORGINA DA”**

Aroa Sánchez
Martínez de Lizarrondo
C.P. Patxi Iarrainzar I.P.

2. SARIA
**“ABENTURA BAT
ITSASOAN”**

Julia Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

3. SARIA
**“MARTINA, ARKAITZ ETA
AMAIAREN ABENTURA”**

Eider Isaba Torrecilla
Hegoalde ikastola

C LEHEN HEZKUNTZAKO – 5. ETA 6. MAILAK

1. SARIA
**“LAGUN IMAJINARIO
BATEN EGUNEROKOA”**

Inés Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

2. SARIA
**“NIRE HAURTZAROA
JUDUTAR KANPAMENDUAN”**

Aner Arraiza Salazar
Jaso ikastola

3. SARIA
“BIDAIA”

Emma Navarro Molina
Jaso ikastola

D BIGARREN HEZKUNTZAKO – 1. ETA 2. MAILAK

1. SARIA
“NI NAIZ”

Amaiur Tejedor Lasa
Biurdana B.H.I.

2. SARIA
“OSPEAREN PASEALEKUA”

Edurne Pascual Uharte
Jaso ikastola

KOMIKI

A LEHEN HEZKUNTZAKO – 5. ETA 6. MAILAK

1.SARIA
“APOSTUA KOMUNEAN”

Uxue Fernández Sagüés
Hegoalde Ikastola

2.SARIA
“AMETSETAN”

Jesús Yong Ladrón Arana
Hegoalde Ikastola

3.SARIA
“LOREEN BABESA”

Ainhoa Flamarique Urbina
Hegoalde Ikastola



Handwritten calligraphy in blue ink on lined paper, featuring stylized Arabic script. The text is highly decorative, with elaborate flourishes and a crown-like symbol integrated into the design. The script is written in a cursive style, typical of modern calligraphy.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

1. SARIA "KANGURO TXIKIA"

Iker Orzaiz Íñiguez
Amaiur Ikastola

Bazen behin kanguru bat saltatzen ez zuena.
Eskolako lagunek barre egiten zioten.

— Kanguru txikiak ez daki salto egiten

KANGURO TXIKIA

BAZEN BEHIN KANGURO BAT SALTATZEN EZ ZUENA.
ESKOLAKO LAGUNEK BARRE EGITEN ZIOTEN.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

1. SARIA

"KANGURO TXIKIA"

Iker Orzaiz Íñiguez
Amaiur Ikastola

KANGURO TXIKIA TRISTE ZEGOEN ETA BERE AMAK
ZAPATILA PARE BAT OPARITU ZION.
-ZAPATILA MAGIKOAK DIRA. NAHI DUZUN TOKIRAINO
EGINGO DUZU SALTO. -ESAN ZION AMAK.



Kanguru txikia triste zegoen eta bere amak
zapatila pare bat oparitu zion.

—Zapatila magikoak dira. Nahi duzun
tokiraino egingo duzu salto – esan zion amak.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

1. SARIA "KANGURO TXIKIA"

Iker Orzaiz Iñiguez
Amaiur Ikastola

Zapatila magikoekin salto izugarriak eman zituen kanguruak. Auto baten gainetik, tren baten gainetik eta etxe baten gainetik ere bai. Baina lagunek esan zioten altuago saltatzeko. Orduan ilargiraino saltatu zuen.

Indarra hartu eta... Bat, bi eta hiru! Ilargia hatz puntekin ukitu zuen.

Lurrera erori zenean, min handia hartu zuen eta zapatilak apurtu zituen.

ZAPATILA MAGIKO EKIN SALTO IZUGARRIAK
EMAN ZITUEN KANGUROAK. AUTO BATEN
GAINETIK, TREN BATEN GAINETIK
ETXE BATEN GAINETIK ERE BAI. ETA
BAINA LAGUNEK ESAN ZIOTEN ALTUAGO
K. ORDUAN ILARGI RAINO SALTATU ZUEN.

INDARRA HARTU ETA...
BAT BI ETA HIRU!
ILARGIA HATZ
PUNTEKIN UKITU ZUEN

LURRERA ERORI ZENEAN
MIN HANDIA. HARTU ZUEN
ETA ZAPATILAK APURTU ZITUEN.

KANGUROA



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

1. SARIA "KANGURO TXIKIA"

Iker Orzaiz Íñiguez
Amaur Ikastola

"Ene! Zer egingo dut orain? Pentsatu zuen.
Orduan, amak esan zion: "Lasai, txiki,
zapatilak ez ziren magikoak. Zapatila
arruntak ziren. Nahi duzun bezain gora egin
dezakezu salto."

Ordutik kanguru txikia zoriontsu izan zen.

"ENE! ZER
EGINGO DUT ORAIN?" PENTSATU ZUEN. ORDUAN, AMAK
ESAN ZION: "LASAI, TXIKI, ZAPATILAK EZ ZIREN MAGIKOAK.
ZAPATILA ARRUNTAK ZIREN. NAHI DUZUN BEZAIN
GORA EGIN DEZAKEZU SALTO."



ORDUTIK
KANGURO
TXIKIA
ZORIONTSU
IZAN ZEN.

IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

2. SARIA "SORGIÑAREN ERRATZA"

Nerea Orozko Amatriain
Amaiur ikastola

Bazen behin Surgilda izeneko sorgin bihurri bat. Beti gaiztakerien bat asmatzen zuen, herriko jendeak nazkatuak zeuden bere maltzurkeriekin.

Egun batean, bere erratzarekin zerua zeharkatzen zegoela, erratza gelditu eta Surgilda erortzen hasi zen. Oihanaren erdian ipurdiz erori zen eta erratza puskatuta zegoela konturatu zen.

— Erratza nazkagarria! Esan zuen umore txarrez.

Oso haserre zegoenez, bere barita magikoarekin maltzurkeriak egiten hasi zen: igelari bost begi jarri zizkion, ehunzango bati hiru oin utzi zizkion. Hortik suge bat pasa zen:

— Kaixo sorgina, zer ari zara?

— Zuri zer inporta zaizu suge itxusia! Erratza puskatu zait eta oso haserre nago, zoaz hemendik!

SORGIÑAREN ERRATZA:

BAZEN BEHIN SURGILDA IZENEKO SORGIN BIHURRI BAT. BETI GAIZTAKERIEN BAT ASMATZEN ZUEN, HERRIKO JENDEAK NAZKATUTAK ZEUDEN BERE MALTZURKERIEKIN. EGUN BATEAN, BERE ERRATZAREKIN ZERUA ZEHARKATZEN ZEGOELA, ERRATZA GELDITU ETA SURGILDAK ERORTZEN HASI ZEN. OHIANAREN ERDIAN IPURDIZ ERORI ZEN ETA ERRATZA PUSKATUTA ZEGOELA KONTURATU ZEN. -ERRATZA NAZKAGARRIA! ESAN ZUEN HUMORE TXARRA. OSO HASERRE ZEGONEZ, BERE BARITA MAGIKOAREKIN MALTZURKERIAK EGITEN HASI ZEN: IGELARI BOST BEGI JARRI ZIZKION, EHUNZANGO BATI HIRU OIN UTZI ZIZKION. HORTIK SUGE BAT PASA ZEN: -KAIXO SORGINA, ZER ARI ZARA? -ZURI ZER INPORTA ZAIZU SUGE ITXUSIA! ERRATZA PUSKATU ZAIT ETA OSO HASERRE NAGO, ZOAZ HEMENDIK!

IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

2. SARIA "SORGIÑAREN ERRATZA"

Nerea Orozko Amatriain
Amaiur ikastola

Sugea beldurtuta arrastaka joan zen. Surgilda negarrez hasi zen.

Beranduago, lehoi iletsu bat pasa zen, sorginarengana hurbildu eta esan zion:

— Kaixo, zer ari zara egiten gure oihanean? Laguntza behar al duzu?

— Ez dut laguntzarik behar! Erratza puskatu zait eta orain ezin naiz etxera bueltatu!

— Lasai, ni oihanaren erregea naiz eta lagundu ahal dizut. Nire ile luzearekin eta jirafak bere lepo luzearekin hartutako adar batekin erratza berri bat egin dezakegu.

SUGEA BELDURTUTA ARRASTAKA JOAN ZEN. SURGILDAK
NEGARREZ HASI ZEN. BERANDUAGO, LEHOI ILETSU BAT PASA
ZEN, SORGINAREN GANA HURBILDU ETA ESAN ZION:

— KAIXO ZER ARI ZARA EGITEN GURE OIHANEAN? LAGUNTZA
BEHAR AHAL DUZU?

— EZ DUT LAGUNTZARIK BEHAR!
ERRATZA PUSKATU ZAIT ETA
ORAIN EZIN NAIZ ETXERA
BUELTATU!

— LASAI, NIK OIHANAREN
ERREGEA NAIZ ETA LAGUNDU
AHAL DIZUT. NIRE ILE LUZEAREKIN
ETA JIRAFAK BERE LEPO LUZEAREKIN
HARTUTAKO ADAR BATEKIN ERRATZA
BERRI BAT EGIN DEZAKEGU.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

2. SARIA "SORGIÑAREN ERRATZA"

Nerea Orozko Amatriain
Amaiur ikastola

Surgilda, lehoia entzutean, harrituta gelditu zen eta negar egiteari utzi zuen. Makila berriarekin eta lehoiaren ilearekin erratz berri bat egin zuten.

Oso pozik jarri zen baina ere lotsatuta zegoen.

— Eskerrik asko lagunok, zuei esker erratz berri bat daukat. Sentitzen dut egindako gaiztakeriak, ez ditut gehiago egingo.

Barita hartu eta dena zegoen bezala utzi zuen, erratzan igo eta bere lagunei agur esan zien. Herrira itzuli eta jendeari barkamena eskatu zion, konjuruak desegin zituen eta ospatzeko festa handi bat egin zuten herriko plazan.

Surgilda sorgin alai bat bilakatu zen.

SURGILDAK, LEHOIA ENTZUTEAN, HARRITUTA GELDITU ZEN
ETA NEGAR EGITEARI UTZI ZUEN. MAKILA BERRIAREKIN.
ETA LEHOIAREN ILEAREKIN ERRATZ BERRI BAT EGIN ZUTEN.
OSO POZIK JARRI ZEN BAINA ERE LOTSATUTA ZEGOEN.
—ESKERRIK ASKO LAGUNOK, ZUEI ESKER ERRATZ BERRI
BAT DAUKAT. SENTITZEN DUT EGINDAKO GAIZTAKERIAKI
EZ DITUT GEHIAGO EGINGO.
BARITA HARTU ETA DENA ZEGOEN BEZALA UTZI ZUEN,
ERRATZAN IGO ETA BERE LAGUNEI AGUR ESAN ZUEN.
HERRIRA ITZULI ETA JENDEARI BARKAMENAK ESKATU
ZUEN, KONJURUAK DESEGIN ZITUEN ETA OSPATZEKO FESTA
HANDI BAT EGIN ZUTEN HERRIKO PLAZAN.
SURGILDAK SORGIN ALAI BAT BILAKATU ZEN.

IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

2. SARIA "SORGIÑAREN ERRATZA"

Nerea Orozko Amatriain
Amaiur ikastola





3. SARIA

"IKASTAROKO FUTBOL PARTIDU DIBERTIGARRIENA"

Iñigo Iribarren Idiazabal
Jaso ikastola

IKASTAROKO FUTBOL PARTIDU DIBERTIGARRIENA

Bazen behin lagun talde bat ikaskide guztiei burla egiten ziona. Hugo haien presa zen: komunean giltzaperatzen zuten, zakarrontzira botatzen zuten, hamaiketakoa kentzen zioten, motxila ezkutatzen zioten, etxerakolana apurtzen zioten, kromoak lapurtzen zizkioten eta ez zioten futboleant jokatzen uzten betaurrekoak eramaten zituelako.

Ume gaixoak bakarrik eta negarrez pasatzen zuen egun osoa, familiarekin etxera bueltatzeko gogoz.

Aste batean gaixorik zegoela asmatu zuen etxean geratzeko. Orduan lagun talde gaiztoa Martarekin sartzen hasi zen: futboleant jolasten ari ziren bitartean ostikoak jo eta gona jaitsi zioten. Neska izateagatik futboleant ezin zuela parte hartu oihukatzen zioten.

Hurrengo astean Hugo ikastolara bueltatu zen eta bankuan bakarrik zegoela Marta hurbildu zitzaion:

- Ez dut ulertzen, ez didate futboleant jolasten uzten neska naizelako.
- Niri ere ez didate jolasten uzten betaurrekoak eramateagatik. Nire ustez ez daukate arazorik.
- - Tira ba, hartu baloia eta goazen ongi pasatzera.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

3. SARIA

"IKASTAROKO FUTBOL PARTIDU DIBERTIGARRIENA"

Iñigo Iribarren Idiazabal
Jaso ikastola

Elkarrekin jolasten hasi zirenean lagunak hurbildu ziren, baita bi irakasle ere eta denen artean futbolekin hasi ziren.

Lagun talde gaiztoa bankuan zegoen, bakarrik, haserre eta inbidia pasatzen.

Orduan barkamena eskatzea erabaki zuten eta partiduan parte hartzea eskatu zieten Hugori eta Martari. Ikastolako futbol partidurik dibertigarriena izan zen.





1. SARIA

"NIRE IRAKASLEA SORGINA DA"

Aroa Sánchez
Martínez de Lizarrondo
C.P. Patxi Iarrainzar I.P.

NIRE IRAKASLEA SORGINA DA

Ni, eskola normal-normal batera joaten naiz, baina nire gela 6.A oso arraroa da. Irakasleak normalak dira, baina irakaslea ez, sorgina dela uste dut. Ematen du gauza magikoak erabiltzen dituela, adibidez, arbelean oso azkar idazten du, inork baino azkarrago. Segundo batean mila gauza idazten ahal ditu. Ezabatu nahi badu arbelarean toki bat ukitu eta bakarrik ezabatzen da, gero, ezabatzen duen itsura egiten du. Liburu magiko bat duela ere uste dut, adibidez matematika tokatzen denean orrialdearen zenbakia xuxurlatzen dio liburuari eta liburuak bakarrik bilatzen du orrialdea.

Egun batean, jolas orduan errekreora joan ordeztu gela ezkutatu nintzen eta irakaslearen armairu guztiak begiratzen hasi nintzen. Momentu horretan sorgina zela ziurtatu nuen. Armairu batean edabeak zituen, bestean magiazko liburuak, bestean erratza, baina gehien harritu ninduen, munduko bola bat izan zen. Behean paper bat zegoen eta "munduko bola magikoa" jartzen zuen. Ez nekien zertarako zen!! Orduan, nahigabe erori egin zitzaidan eta jasotzerako orduan eskuekin hartu behar izan nuen, ohi den bezala. Esku batekin altxatu nuen, esku horrek Afrika ukitu zuen



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
3. ETA 4. MAILAK

1. SARIA

"NIRE IRAKASLEA SORGINA DA"

Aroa Sánchez
Martínez de Lizarrondo
C.P. Patxi Iarrazar I.P.

eta bat-batean, munduko bolan zenbakiak atera ziren: 10- 9- 8- 7- 6- 5- 4- 3- 2- 1 eta halako batean, Afrikan nengoen. Asko gustatu zitzaidan. Afrika ikusi nuen eta hor egon nintzen. Oso polita zen baina hain ongi pasatzen ari nintzen, ahaztu zitzaidala eskolara bueltatu behar nintzela, baina erlojua ikusi eta horretaz ohartu nintzen. Orduan, munduko bola hartu eta Euskal Herria ukitu nuen, ondoren, munduko bola hurbiltzen hasi zen Euskal herrira. Beraz, iruña ukitu eta azkenik nire eskola. Ze ongi!!! Eskolan negoen!!

Beste gauza oso oso arraro bat ikusi nuen: patata poltsa bat patatamagik izenekoak. Poltsa ireki eta bat jan nuen baina ez zen ezer gertatu. Kromo bat zegoela ere konturatu nintzen. Kromoa hartu nuen baina ez zen kromo bat, nota bat zen! Irakaslearena!! Hori badakit bere letra ezagutzen dudalako, bere letra oso iluna da oso oso iluna:

kaixo! Ni irakasle mirentxu naiz eta hau irakurtzen ari bazara sorgina naizela jakingo duzu. 5 lagunei esaten ahal diozu nire sekretoak baina bakarrik 5 lagunei Gogoratu!! Begiratu zapaltzen



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
3. ETA 4. MAILAK

1. SARIA "NIRE IRAKASLEA SORGINA DA"

Aroa Sánchez
Martínez de Lizarrondo
C.P. Patxi Iarrazar I.P.

ari zaren lurra, bi toke eman eta portal magiko bat aterako zaizu. Opari bat da nor naizen konturatu zarelako.

Bi aldiz pentsatu gabe, nire lagunei esan nien. Eskerrak sinistu zidatela!! Hala ere, larunbat arte itxaron behar genuen. Azkenean, larunbata iritsi zen. Eskola irekita zegoen, ze ongi! Gelara joan ginen, lurrean bi toke eman genituen eta portal magiko bat ireki zen. Nire lagunei abisatu nien:

- Etorri azkar, mesedez!! Begira!! -oihukatu nuen.

Portala ikustean korrika joan eta portalean sartu ginen. Atrakzio parke batean agertu ginen, hori bai magikoa zen, ezagutzen nituenen antzekoa zen baina magikoa. Lehenengo, toki arraro batera joan ginen. Tokih ori mila atez josita zegoen ate bakoitzak toki batera eramaten zuen. Ate batek bideojokoetako areto infinito batera eramaten zuen, beste batek jateko beste areto batera, hor gominolak, txokolateak, patata poltsak... Niri gehien gustatu zitzaidan aretoa hegan egitearena zen: zapatilla hegalarien artean, motxila propulsoraren artean, hegalean artean edo espazioan egongo bazina aukeratzen ahal zen. Nik espazioarena aukeratu nuen. Beste lagun batek, berriz, arroparen aretoa aukeratu zuen: tubo batean sartzen zinen eta nahi zenuen modelitoa aukeratzen zenuen pantalla batean, 2 segundotan tubotik atera eta jantzita ateratzen zinen.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
3. ETA 4. MAILAK

1. SARIA "NIRE IRAKASLEA SORGINA DA"

Aroa Sánchez
Martínez de Lizarrondo
C.P. Patxi Iarrainzar I.P.

Bat-batean telefonoak jo zidan, nire ama zen. Esan zigun 10 ordu generamatzala etxetik kanpo. Bueltatzeko ordua iritxi zen, ze pereza!!!! Orduan, etxera bueltatzeko portala ireki zen. Nik ez nuen joan nahi ezta nire lagunek ere, baina bueltatu behar genuen.

Orain, nire irakaslea sorgina dela dakitenek, nik barne, pentsatzen dugu:

- Ezin dut sinetsi Aroaren irakaslea sorgina dela!! Ze pasada!!!- pentsatzen dute nire lagunek.

Nik berriz:

- Ezin dut sinetsi nire irakaslea sorgina dela! Ze pasada!!!!

Eta egia a la gezurra begi bien artean sudurra

ABENTURA BAT ITSASOAN

Kaixo! Marta naiz, 9 urte ditut eta jolastea
ikaragarri gustatzen zait. Nire ahizpa
txikia beti gure Katu Kittirekin dago eta
nire ama, berriaz, beti lanean, ez bada etxeko
lanak egiten ofizinararen gauzak.

Egun batean nire osaba Gorkak esan zigun.

-Oporretara geaz!!

Nire ahizpak Katua eskuetan zuela galdetu zuen

-Nora geaz? Amonaren etxera?

-Sorpresa da, ikusko duzue -erantzun zuen osabak.

IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
3. ETA 4. MAILAK

2. SARIA "ABENTURA BAT ITSASOAN"

Julia Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

Ordu batzuk geroago hegazkin
pribatu batera igo ginen, masajeak
ematen zituzten eserlekuetan eseri
ginen, eta gainera jatekoa dohainik
eman ziguten.

Lurreratu bezain laster apartamendura
abiatu ginen. Han ehar bat zegoen
mahai gainean eta hau jartzeko zuten. Ongi
cetoria! Wahainura, espero dugu gustatzea.
Maletak dazegin genituen eta amak esan zuen:
-Goazen hondartzara!!!

Bainujantzia jantzi, igeri egiteko hegotsak hartu eta mototx bat
egin nuen.





2. SARIA "ABENTURA BAT ITSASOAN"

Julia Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

Hondartzan ginenean ur azpian zerbait disdiratsua ikusi nuen. Uretan sartu eta ur azpian igeri egiten nengoela pampinetako etxe erraldoi bat ikusi nuen. Irritikan nengoen zer zegoen ikusteko eta barrua sartu nintzen.

Etxe barruan maitagarri pila bat zeuden, nire pampinak bezalakokak, eta gainera beraien laguna egin nintzen. Baina berandu egin zen eta nire ama eta osaba niri deika zeuden, MARTAAAA NON ZAUDE?

Kostaldera joan nintzen eta nire ahizpari gertatutakoa kontatu nion, baina normala, ez zidan sinestu. Horregatik erantzun nion:

-Etorri bihar nirekin eta ikusiko duzu.

IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
3. ETA 4. MAILAK

2. SARIA "ABENTURA BAT ITSASOAN"

Julia Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

Hurrengo egunean argazki-kamera hartuta
igeri egitera joan ginen.
Pamplonetako etxean maitagarriak eta kutxa polit bat-
zuk zeuden.

Argazki-kamera erkuetkin eutsi baina, a ze pena bate-
ria gabe zegoen.

Orduan nire ahizpakesan zidan:

-Ezin dugu argazki-kamerarekin argazkirik egin,
baina gure buruan bai.



3. SARIA

"MARTINA, ARKAITZ ETA AMAIAREN ABENTURA"

Eider Isaba Torrecilla
Hegoalde ikastola

MARTINA, ARKAITZ ETA AMAIAREN ABENTURA

2019ko abenduaren 18an Txinan pangolin baten azaletik gaixotasun bat sortu zen, KOBID-19a. Egun batean, Jone, Martina, Arkaitz eta Amaia, han bizi ziren hemezortzi urteko neska-mutil batzuk, Txinako azokara joan ziren. Bakoitzak zerbait erosi zuen: Amaiak, eskumuturreko bat; Martinak, futbol baloi bat; Arkaitzek, koaderno bat eta Jonek, pangolinaren azalez egindako motxila.

Hurrengo egunean, Jone gaizki sentitzen hasi zen eta medikua deitu zuten. Medikiak jakin zuen inoiz ikusia ez zuen gaixotasun bat zela. Medikuek Martinari, Amaiari eta Arkaitzi gauzen zerrenda bat eman zieten. Medikiak esan zuen:

- Gauza hauek bilatu behar dituzue European, Ilargian eta Amerikan.

Hau jartzen zuen: erromeroa, perrexila, otalore bat, mundu piper minena, Habanako pipermina eta krater hautsak.

Neska-mutilalak harrituta geratu ziren aurkitu behar zituzten gauzekin.

- Munduko piper minena? – esan zuen Amaiak.
- Krater hautsak? –esan zuen Martinak.
- Eta otalore bat? –esan zuten hirurek batera.
- Joan zaitezte ahalik eta lasterren gauzen bila!.





3. SARIA

"MARTINA, ARKAITZ ETA AMAIAREN ABENTURA"

Eider Isaba Torrecilla
Hegoalde ikastola

Amaia Martina eta Arkaitz etxera joan ziren pentsakor.

- Joan behar baldin badugu, nik aita eta amari esan diet joatekoak naizela. –esan zuen Martinak.

Hirurek gauza bera pentsatu zuten. Etxera heldu eta gero maletak egiten hasi ziren. Guztiek arropa, kantinplora, janaria, dirua, mapa eta telefonoa bere kargagailuarekin, noski, ezin ziren telefonorik gabe joan.

Hurrengo egunean elkartu eta esan zuten:

- Nondik hasiko gara? –esan zuen Martinak.
- Ez dakit, –esan zuen Arkaitzek.
- Nik uste Ameriketatik has gaitezkeela. Han bi gauza aurkitu ditugulako: otalorea eta Habanako pipermina. Gainera, hemendik hurbilago dago –esan zuen Amaiak.
- Ongi, has gaitezen! –guztiek batera.
- Itsasontzi bat alokatu dut Kubaraino joateko –esan zuen Arkaitzek.
- Itsasontzia hartzen dugun tokiraino nire kotxean joango gara –esan zuen Martinak, itsasontzia Japonian hartu behar zutela kontutan izanda.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
3. ETA 4. MAILAK

3. SARIA

"MARTINA, ARKAITZ ETA AMAIAREN ABENTURA"

Eider Isaba Torrecilla
Hegoalde ikastola

Itsasontzian hainbat egun eman zuten Kubara heldu arte. Gustura atera ziren itsasontzitik bidaian zorabiatu egin zirelako. Kubako azokan pipermina bilatu zuten hainbat orduz, eta azkenean, aurkitu egin zuten. Gero, Turkino mendia igo zuten otalore bat hartzeko. Hartu behar zutenean ziztatu egin ziren baina Martinak eskularru bereziak ekarri zituen otalorea hartzeko. Amaiak, berriz, osagaiak sartzeko poltsa hartu zuen eta han zuten otalorea eta pipermina. Mendian zeudela Arkaitzek esan zuen:

- Nora joango gara orain?
- Europara! proposatu zuen Amaiak. Han perrexila eta erromeroa lortuko dugu –esan zuen pozik.
- Goazen ba Europara!
- Bai, goazen!
- Bai, baina, itsasontziz joan beharko dugu? –galdetu zuen Martinak.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
3. ETA 4. MAILAK

3. SARIA

"MARTINA, ARKAITZ ETA AMAIAREN ABENTURA"

Eider Isaba Torrecilla
Hegoalde ikastola

Arkaitzek baiezkoko keinua egin zion buruarekin eta bi neskek hasperen egin zuten, triste egongo balira bezala.

- Mapa aztertuko dugu? –esan zuen Martinak
- Ongi da! Esan zuen Amaiak.

Hau da zuten mapa:



Itsasontzian berriro hainbat egun eman eta gero gosez akabatuta zeuden. Orduan, bakoitzak motxila ireki eta jateko gauzak atera zituen:



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
3. ETA 4. MAILAK

3. SARIA

"MARTINA, ARKAITZ ETA AMAIAREN ABENTURA"

Eider Isaba Torrecilla
Hegoalde ikastola

Amaiak, croissant-a eta mangoa; Arkaitzek, lau magdalena eta sagar bat eta Martinak, gominolak eta kokoa. Bapo jarri eta gero heldu ziren Europako hiri txiki batera, Iruñera. Han Merindadesen plazan zebiltzanean etsitu egin ziren. Uste zuten ez zutela inoiz perrexila eta erromeroa aurkituko. Orduan familiarekin zegoen neska bati esan zioten:

- Kaixo, nola duzu izena?
- Ni Eider naiz, hau nire ama Amaia eta nire aita Dabid. Zer nahi duzue?
- Perrexila eta erromeroa non aurkitu jakin nahiko genuke –esan zioten gure lagunak.
- Guk esango dizuegu, gainera, gu ere erosketak egitera goaz –erantzun zuen neskak. Etorri gurekin!

Neska-mutilek baiezko keinua egin eta supermerkatu abiatu ziren. Martina, Amaia eta Eider lagun minak egin ziren.

- Hau erromeroa da eta beste hori perrexila –esan zuen Eiderrek.

Erosketa egin eta gero elkar agurtu zuten eta Eiderrek galdetu zuen:

- Zuekin joan gaitezke?
- Bai, noski –erantzun zuten hirurek batera.
- Etorri etxera eta afaria emango dizuegu. Bihar goizean aterako gara.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
3. ETA 4. MAILAK

3. SARIA

"MARTINA, ARKAITZ ETA AMAIAREN ABENTURA"

Eider Isaba Torrecilla
Hegoalde ikastola

Biharamunean guztiak atera ziren eta kotxean joan ziren espazioentzien tokira. Han astronauta batzuekin topo egin eta beraiekin ilargira joateko uzteko eskatu zieten. Neska-mutil horiek oso jatorrak zirenez utzi zieten eta ilargian ibiltzeko tresna eman zizkieten. Guztiak batera joan ziren ilargira eta krater-hautsak hartu zituzten pote batean.



Lurreratzerakoan berriro Txinara bueltatu ziren. Medikuari osagaiak eman baina, Jone sendatuta zegoan jadanik. Neska-mutilak pozik zeuden beraien laguna sendatu zelako, jende berria ezagutu zutelako eta bidaia ikaragarria bizi zutelako. Guztiak lagun egin ziren.

Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila udaleko plazan.

LAGUN IMAJINARIO BATEN EGUNEROKOA

Kaixo, Ander deitzen naiz eta lagun imaginario bat naiz, 12 urtekoa. Goizargi izeneko 6 urteko neskak sortu zidan, alaba-bakarra dela eta, asko aspertzen zelako etxean. Gainera, ikastola berri batera aldatu behar da uda ondoren (oraingoa etxetik oso urrun baitago) eta klaseko lehen egunetan ez badu lagunik aurkitzen ni izango naiz bere konpainiarik onena. Berarentzat, altu samarra naiz, ile beltza, begi berdeak eta azal argia dauzkat. Lotsati samarra naiz baina Goizargirekin ez, uste osoa baitut harengan. Berak, ile horia eta motza du, begi handiak eta marroi kolorekoak eta azala, nirea baino ilunagoa. Nirekin oso alaia da eta asko maite nau, ia-ia anai-arrebak bezalakoak gara.

Beharbada ez duzu asko jakingo lagun imaginarioei buruz, horrela bada, gure bizi zikloaren laburpen azkar bat egingo dizut. Lagun imaginarioak, gure sortzailearen irudimenak sortuak gara. Lagun-min imaginario bat, bi edo hiru pertsonekin ere parteka daiteke, baina gure magia gutxitzen da. Gure helburua bete dugunean edo gure sortzaileak gutaz ahazten direnean, desagertzen gara. Magikoak garenez, teletransportatzeko eta itxura aldaketa egiteko ahamena dugu, gainera ez gara inoiz hazten. Orain lehen baino gehiago dakizu gutaz, seguru. Honez gain, nire egunerokoaren zati bat azalduko dizut jarraian.

Irailak 1.

Gaur ikastola berria ikustera joan gara, Eguzkilo izenekoa. Goizargiri ez zaio asko gustatu, ez hori, ez bat ere, ez dituelako bere orduko lagunak galdu nahi, baina ni berarekin egongo naiz laguntzeko. Han ginela, bere irudimenean murgildu naiz haren pentsamenduak alaitzeko.



1. SARIA
"LAGUN IMAJINARIO
BATEN EGUNEROKOA"

Inés Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

Komunera joan da pixka bat lasaitzera eta han nire sorpresatxoak ikusi ditu. Atea irekitzean, sorgin batzuk pozio bat egiten ari zirela ikusi du, komuneko zuloa lapiko bezala erabiliz. Hori bai ez zuela espero! Ondoren, bisitarekin jarraitu dugu eta gelak ikusi ditugunean, aulkien ordezt, sofa eroso batzuk zeuden. Horrela bere bizkarreko mina kenduko zitzaiola pentsatu du, baina zoritxarezt, irudimena baino ez zen.

Azkenik, pasilloan neska batzuk berarengana hurbiltzen irudikatu ditu nire laguntzarekin, baina, ezustekoz, aurpegia triste azaldu du. Ez dut oso ongi ulertu.

Irailak 2.

Atzo ikastola ikusten ari ginela izan zuen irudikapena oso bitxia izan zen. Nire ustezt, beldur zen egungo lagunak galduko ote zituen, eta horregatik berri batzuk egin nahi zituen bakarrik ez sentitzeko... Baina etxean pribatuan argitu zidan dena. Bere kezka nagusia lagun berririk ez egitea zen.

-Baina ni zurekin egongo naiz! - esan nion animatu nahian-.

-Bai - erantzun zidan irribarre egiten saiatuz-.

Hala ere, biok bagenekien ez zela gauza bera izango.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
5. ETA 6. MAILAK

1. SARIA "LAGUN IMAJINARIO BATEN EGUNEROKOA"

Inés Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

Amak Goizargiri deitu dio mahaia jartzeko. Berarekin joan naiz eta ni txakur txiki baten forma hartzea nahi izan du Goizargik. Purpurinaz betea nengoen, begizta batez apaindu nau eta gutxi balira, tutu erraldoi bat jarri dit.

-Ze polita zaren nire txakurren printzesatxo! -esan dit Goizargik amona baten ahotsa imitatuz-.

Baina nik ez nuen txakur moñoño bat izan nahi. Bat-batean, platerrak biltzen ari zenean, ia zorabiatu egin da, txakurren printzesa itxura utzi eta dragoi bihurtu naizelako. A zelako izua hartu duen! Baina tutua oraindik nuen. Transformazio hori gehiago praktikatu beharko dut, Goizargiri berriz, oso ongi ateratzen zaio eta katu txkitxo bihurtu nau.

Irailak 3, 4, 5.

Egun hauek urduri eman ditu Goizargik. Lagunengan pentsatzen ematen ditu orduak, bihar ikastolan hasten baita. Lasaitzen eta animatzen saiatu naiz, baina ez zegoen modurik! Gauza onetan pentsatzea gomendatu diot baina ez dio negar egiteari utzi egun osoan! Gauean, estututa zegoen eta haren irudimenean sartu naiz berriro, berak zerbait lasaigarria amesteko. Goizargi klase batean irudikatu dut eta haurrak bere inguruan zeuden, laguna izateko gogoz, denak oso jatorrak ziruditen. Baina konturatu naiz, irakasleari katu aurpegia jarri diodala. Gutxienez, irribarre bat eragin dio Goizargiri.

Irailak 6.

Gaur ikastolako lehen eguna izan da. Goizargik, egun osoan berarekin egoteko eta bakarrik ez uzteko eskatu dit. Urduri zegoen hasieran, baina autobusean zegoela, berarekin bi neska eseri dira eta haien artean hitz egiten hasi dira. Ainara eta Nagore ziren haien izenak, klasean ere elkarrekin eseri dira. Patioko orduan, oso ongi pasa dute elkarrekin jolasean. Azkenean, berak ni baztertu nau baina horrek ez dit axola, garrantsitzuena bera gustora egotea da eta.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
5. ETA 6. MAILAK

1. SARIA "LAGUN IMAJINARIO BATEN EGUNEROKOA"

Inés Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

Goiza pasa da eta etxera itzultzeko orduan, autobusera igo gara berriro. Ainara eta Nagore bere zain zeuden eta Goizargik hau galdetu dit:

-Aizu Ander... inporta al zaizu beste eserleku bat bilatzea? Nagorek sekretu bat kontatu behar du eta.

-Noski ezetz! - erantzun diot eta autobuseko pasilloan barna leku baten bila joan naiz. Zoritxarrez, autobusa mugitzen hasi da eta bultzadarengatik, lurrera erori naiz txikle baten gainean, nire ilea nahastu da eta praken botoia galdu egin zait.

Irailak 7, 8.

Lehen, ikastolatik etxera ailegatzen ginenean, Goizargik egunean zehar berari gertatutakoa kontatzen zidan eta barre batzuk botatzen genituen elkarrekin, orain aldiz, beti bere lagunei buruz hitz egiten dit. Den-dena dakit Ainararen txakurrari eta Nagoreren pelutxeari buruz. Gaur, aldiz, ez dit egun osoan ia hitzik esan...

Irailak 9.

Ostirala da, astea espero baino hobeto joan da, Goizargirentzat behintzat. Oso pozik dago ikastola berrian eta, gainera, tarteka bere lehengo lagunei deitzeko denbora izaten du. Nik, ordea, ez dut astirik izan berarekin egon ahal izateko. Lehen, gauero, afaldu eta gero, gure



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
5. ETA 6. MAILAK

1. SARIA "LAGUN IMAJINARIO BATEN EGUNEROKOA"

Inés Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

telebista saio gustokoena ikusten genuen elkarrekin. Orain, aldiz, bere lagunekin telefonoz hitz egitea nahiago du.

Irailak 10.

Susmo txar bat dut. Uste dut, gutxinaka-gutxinaka, Goizargi nitaz ahazten ari dela, baina ez diot zoriontasuna kendu nahi, orain oso pozik dirudi eta. Ni beti bera laguntzeko egongo naiz. Baidirudi gauza txar guztiak pasatu direla eta, ziur naiz, orain Goizargik ez nauela behar. Lagun onak ditu, baita bera maite eta berarekin denbora luzean egoten den familia ere.

Patiora joan naiz, zertan ari zen ikusteko. Han zegoen, bere adiskideekin barrezka. Geroago, klasean sartzerakoan hari itxoiten zeuden... Oroitzapen batzuk burura etorri zaizkit: nirekin jolastu zuen lehen aldia, sekretu bat kontatu zidan lehen aldia, irribarre bat atara nion lehen aldia... baita txakur printzesa bihurtu ninduen lehen aldia.

-Nire lana hemen bukatu da -pentsatu nuen eta desagertu egin nintzen Goizargiren pentsamenduetatik-.

...

Ez dakit zenbat denbora pasa den, hala ere, hemen naiz berriz. Goizargiren antz handia duen neska bat ikusi dut, aldiz, bera baino zaharragoa da, 12-13 urte izango ditu. Triste zirudien.

-Laguntza behar al duzu? -galdetu diot-.



IPUIN



1. SARIA "LAGUN IMAJINARIO BATEN EGUNEROKOA"

Inés Cuevas Aparicio
Jaso ikastola

-Ai! Barkatu! Ez zaitut ikusi... - esan du pixka bat harrituta eta, aldi berean, irribarre bat azalduz-. Oraingo ikastola utzi behar dut institutura joateko... - gehitu du-. Goizargi ekarri dit gogora eta istorioa kontatu diot: hasieran izan zuen beldurra gaindituz, nola lehen minututan egin zituen lagunak. Irribarre egin du eta besarkatu egin nau.
-Eskerrik asko Ander! -esan dit-.
-Goizargi? - bera izango al zen?-.



AMAIERA

NIRE HAURTZAROA JUDUTAR KANPAMENDUAN

1940ko maiatzaren 8a:

Groizean bi militar sartu ziren nire etxean, beraiekin joatea esan zidaten. Autoan sartu nintzen eta tren geltokira eramanez ninduten, milaka pertsona zeuden geltokian eta guztiok tren berdina hartu genuen, ez zeuden aulkirik, guztiok zutik ginen.

Ordu eta erdi bat igaro ondoren trena gelditu zen. Etxola txikiz osatutako kanpamendu halako batera iritsi ginen.

Etxoletan banatu gintuzten eta gure arropak kentzea eskatu ziguten, beste arropa batzuk eman zizkiguten, pijama zahar bat bezalakoa zen.

Bazkaltzeko ordua iritsi zen, purea eta haragi pixka bat zegoen bazkaltzeko.

Purea nazkagarria zegoen eta haragia oso lehorra.

Bazkaldu ondoren 30 minutuko jolasordua genuen eta ondoren lan egitera eramanez gintuzten. Lan egiterakoan zerbait erortzen bazitzaizun, militarrek makilaz jotzen zizuten.

Bost eta erdietan ogi puxka bat eman ziguten meriendatzeko eta ogia jaterakoan berriro lanera bederatziak arte. Afaltzeko zopa zali bat eman ziguten eta gero ohera joan ginen. Horrela izan zen nire lehenengo eguna kanpamendu horretan.



IPUIN



2. SARIA "NIRE HAURTZAROA JUDUTAR KANPAMENDUAN"

Aner Arraiza Salazar
Jaso ikastola

1940ko maiatzaren 9a:

Nire urtebetetzea zen 9 urte betetzen nituen, oso pozik altxatu nintzen ohetik nahiz eta kanpamenduan egon, gogo handiak nituen lagunak bilatzeko. Goizean 30 minutu genituen jolasteko eta lagunak bilatzeko momenturik aproposena zen, nire adineko umeak bilatzera atera nintzen. Korrika joan nintzen eta etxolatik ateratzerakoan ume batekin topatu nintzen. Berarekin hitz egiten hasi nintzen.

10 urte zituen eta bere izena Uxue zen, oso jatorra eta alaia zen. Esan zidan kanpamendutik alde egin nahi zuela, ideia ona iruditu zitzaidan eta gure planak egiten hasi ginen, baina planak egiten hasi ginenean txilibittoa jo zuen militar batek. Etxolan sartu baino lehen militar bateri galdetu nion:

-Zergatik gaude kanpamendu honetan?

Militarrak aurpegi beldurgarri batekin begiratu eta hauxe esan zidan:

-Judutarra zarela zaudete hemen eta Alemaniarrek gorrototzen zaituztegu. Arratsaldea normala izan zen, bazkaldu, uxuerekin planak egin, lana egin, meriendatu, berriro lan egin, afaldu eta ohera joan.





2. SARIA "NIRE HAURTZAROA JUDUTAR KANPAMENDUAN"

Aner Arraiza Salazar
Jaso ikastola

1940ko maiatzaren 10a:

Ohetik azkar altxatu nintzen, planak egiteko gogo handiak nituelako. Uxuerekin elkartu nintzen patioan eta leku ezkutatu batera joan ginen planak egiten hasteko.

-Plan bat bururatu zitzaidan atzo gauean, ea zer iruditzen zaizun:

Ikusi dut etxoletan lehio txiki batzuk daudela eta kanpoaldera ematen dutela, horrek esan nahi du lehiotik atera behar dugula, baina etxolan ez du inor egon behar. Orduan bazkaldu ondoren atera beharko dugu eta janari pixka bat har dezakegu ere. Gu ez gaudela jakingo dutenean urrun egongo gara, zer iruditzen?

Esan zuen Uxuek, eta nik segituan galdetu nion:

-Ondo iruditzen zait, baina zer esango dute gurasoek?

-Nire gurasoek badakite goizean-goiz esan diet eta ideia ona dela esan dute. Baina zure gurasoei zuk esan behar diezu.

Uxuek esan zuen gurasoengana joan behar zuela eta gure planak azaldu. Beldur handia nuen, zer esango ote zuten?

Gure planak azaldu nituen, ideia oso ona zela esan zuten, baina beraiek ezin zirela etorri esan zidaten.

Eguna oso triste pasatu nuen, ez nuen gogorik ezertarako!!!!!!



IPUIN



2. SARIA "NIRE HAURTZAROA JUDUTAR KANPAMENDUAN"

Aner Arraiza Salazar
Jaso ikastola

1940ko maiatzaren 11a:

Egunero bezala uxuerekin elkartu nintzen, nire gurasoek ezin zirela etorri esan nion, bere gurasoak ezta ezin ziren gurekin etorri, militarrek berehala ohartuko ziren eta gure planak deskubrituko zituzten.

Dena ongi ateratzen bazen bi egunetan kanpamendutik kanpo egongo ginen eta oso ongi prestatu beharko genuen gure ihesaldia.

Eguna pozik pasatu nuen bi egunetan kanpoan egongo ginelako, ezin zitzaigun horri loturiko ezta hitz bat atera besteen aurrean.

1940ko maiatzaren 12a:

Gauean ideia bat bururatu zitzaidan eta uxueri kontatzea erabaki nuen.

Bazkalorduan eta afalorduan janaria lapurtu behar genuen, kanpamendutik ateratzerakoan gosez ez hiltzeko. Uxuek zer esango zuen itxoiten nengoen eta ezer esan gabe motxiila txiki bat atera zuen bere etxolatik eta barruan janari pila bat zegoen! Nire pentsamenduak irakurri zituen!

Eta jarraian Uxuek esan zuen:

-Lehenengo egunetik janaria lapurtzen egon naiz eta konturatu baino lehen motxila bete dut.

-Gure planak ongi atera behar dute, bai edo bai.

Esan nuen guztik konbentziturik, eta jolastera joan ginen.



2. SARIA "NIRE HAURTZAROA JUDUTAR KANPAMENDUAN"

Aner Arraiza Salazar
Jaso ikastola

1940ko maiatzaren 13a:

Eguna iritsi zen, azkenean kanpamendutik atera behar ginen, oso urduri negoen. Patora atera nintzen Uxuerekin elkartzeko, bera ere oso urduri zegoen, ezin genuen atzera egin. Bazkalorduan ogia eta xolomo pixka bat lapurtzea erabaki nuen ogitarteko txiki bat egiteko, eta etxola batera joan ginen lehiotik ateratzeko, Uxue dardarka zegoen ia negarrez, lasaitzen saiatu nintzen. Ni izan nintzen lehena ateratzen atzera begiratu nuen militarrek ez zeudela ziurtatzeko. Ez zegoen inor orduan Uxue lehiotik atera zen eta biok korrika joan ginen, baina militar batek ikusi gintuen eta alarma jo zuen, gu askoz azkarrago joaten hasi ginen eta urrun ginenean izkutatu ginen eta hor eguna pasatu genuen deskantsatzeko. Hurrengo egunean herrixka batera iritsi ginen. Familia batek ikusi eta bere etxera eraman gintuzten, beraiekin bizitzea esan ziguten, oso ongi iruditzen zitzaigun eta hala egin genuen.

Horrelakoa izan zen nire haurtzaroa, oso gogorra, baina bizipen hori esker nire bizitzako emakumea ezagutu nuen.

Alfa



3. SARIA "BIDAIA"

Emma Navarro Molina
Jaso ikastola

BIDAIA

Bazen behin, Ainhoa izeneko neska alai bat. Bere familia eta txakurrarekin bizi zen. Ainhoak lagun talde bat zuen, eta duela asko bidaia bat egiteko gogoaz zuten. Taldean bost pertsona ziren: Aratz, Iñaki, Amaia, Irene eta bera. Dirua lortu zuten, eta Frantziara joatea erabaki zuten.

Igandean goizeko hamarretan plazan geratzea erabaki zuten. Igandea iritsi zen eta Ainhoa bere lagunekin zegoen plazan. 10:15an gelako inpuntualena heldu zenean, autobus geltokira abiatu ziren. Autobus geltokia plazatik gertu zegoen, hamar minutu gutxi gorabehera. Heldu zirenean eraikin handi bat zuten aurrean. Eraikinak hiru pisu zituen 1, 0 eta -1.

1 eta 0 pisuan bidaia agentzia zegoen, eta -1 pisuan autobusak zeuden.

Sartu eta autobuseko sarrerak hartzera joan ziren. Gero beheko pisura jeitsi eta autobusa hartu zuten. Autobusa urdin kolorekoa zen, eta luzera lau kotxe bezalakoa zen.

Barrutik eserlekua urdinak ziren ere bai. Bidaia hasi zen. Ordu erdi pasata bakarrik berdea ikusten zen, eta noizean behin herri txiki bat. Gaua egin zen. Bera herritik bost kilometrora autobusa soinu arraroak egiten hasi zen eta gelditu egin zen. Gidariak autobusa aztertu eta gero esan zuen apurtuta zegoela eta konpontzeko hiru ordu behar izango zituela.

Hor zeuden gauean, autobusa apurtuta eta janaririk gabe.

Aratz, Inaki, Amaia, Irene eta Ainhoa ingurunea aztertzerat atera ziren. Hamar minutu ibili eta gero herri bat aurkitu zuten. Herria Oradour izena zuen. Janari bila sartu ziren. Sartzean ez zuten inor ikusi, ez zegoen argirik piztuta eta ez zen ezer ez entzuten. Orduan pentsatu





3. SARIA "BIDAIA"

Emma Navarro Molina
Jaso ikastola

zuten herria abandonatua egongo zela. Etxe baten bila hasi ziren, bertan lo egiteko eta etxe txuri bat aurkitu zuten. Jardin handi batekin, Ainhoak leihoei begiratu eta pertsona bat ikusi zuen. Begi bat berdea eta bestea beltza zuen, aurpegian ebakiondo batekin eta ezpaina odolatan zeukan.

Oihu beldugarri bat bota zuen beldurraren ondorioz.

- Zer gertatzen zaizu? - galdetu zuen Iñakik.

Guztiek leihora begiratu zuten eta lau oihu beldugarri entzun ziren herri guztitik.

Korrika atera ziren, beldurrak inbaditzen zituen. Izkutatzeko leku bat bilatu zuten. Urrunetik soinu araro bat entzun zuten

- Auuuuuuuuuu.

Forma arraro bat beraingana korrikan etortzen zen, otso baten antza zuen,ez, gizotso bat zen!!! Ziztu bizian atera ziren, baina gizotsoa oso gertu zuten. Atea irekita zuen etxe zahar bat ikusi zuten, eta hor sartu ziren. Etxea kandelaz beteta zegoen eta sabaia armiarma sarez .

Argia sartzen zen leku bakar bat zegoen, leiho zahar bat zen. Etxearen ezkerrean Bi butaka eta sofa zikin batzuk zeuden. Telebista ezik apalategi bat zegoen liburuz beteta. Etxea aztertzen hasi ziren, sukaldea ez zen oso handia, eta mueble txuriz beteta zegoen. Bi logela eta komun bat zuen eta bigarren logela korridore baten azken partean zegoen, bat-batean musika beldugarri bat entzun zen.

Musika azkeneko logelatik etortzen zen, bost lagunak hara gerturatu ziren.

Atea pixka bat irekita zegoen. Denek begiratu eta Frankenstein ikusi zuten. Han eserita zegoen pianoa jotzen. Amaiak oihu bat bota zuen, Frankenstein konturatu zen eta buelta eman zuen.



IPUIN



LEHEN HEZKUNTZAKO
5. ETA 6. MAILAK

3. SARIA "BIDAIA"

Enma Navarro Molina
Jaso ikastola

Han zeuden bostak herri baten etxean, Frankenstein aurrean zutela, ezin korrika egin beldurraren hondorioz. Barruan Frankenstein zegoen eta kanpoan gizotsoa.

Galduta zeudela pentsatu zutenean, Frankesteinek hitz egin zuen:

- Zer halloween ospatzera etorri zarete hala?
- Zer? - galdetu zuten.
- Gaur hemen Oradour herrian halloween ospatzen da.- esan zuen Frankesteinek mozorroa kentzen.

Momentu batez, bukatuta zeudela pentsatu zuten.

Baina ez zen horrela.

Gure lagunak han gelditu ziren Halloween ospatzen.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Oradourko plazan.



1. SARIA "NI NAIZ"

Amaiur Tejedor Lasa
Biurdana B.H.I.

NI NAIZ

Euria. Euria ari du eta hainbesteko hezetasuna dago, ukitzea ere posible izango litzatekeela.

Negua dela esango nuke, ez naiz ziur. Kale estuak jendez gainezka daude. Denak presaka dabiltza, nonbaitera iristeko denborarik ez balute bezala.

Edozein txokotara begiratuta ere, animaliak ikusten ditut, bizirik. Kaioletan sartuta. Gizaki baten eskuetan noiz eroriko ote diren beldur. Arreta deitu didan katamotza ikusi dut. Izaturik dago. Kaiolako burdin luzeek mugitzeko ahalmena kentzen diote. Ikusten ditudan pertsona hauentzat, izaki bizidun hauek, bakarrik alde batetik bestera mugitu daitezkeen objektu sinpleak dira.

Gizakia gainerakoen aginpean nola jarri den eta mundua erabat aldatzera nolatan iritsi den ikustea harrigarria egiten zait. Ondoan ditudan animalien begietan argi ikusten dira, beldurra, ikara, urduritasuna... Hala ere, oso denbora gutxian animalia desagertu egiten da gizaki baten hatzapar zikinetan erori egiten baita.





1. SARIA "NI NAIZ"

Amaiur Tejedor Lasa
Biurdana B.H.I.

Bat-batean, mugitzen hasi naiz. Oso azkar. Animaliangandik urrundu egin naiz eta orain gizakiz inguratuta nago.

Gizaki bat ezagutu dut; Li Zhang deitutakoa. 53 urteko okina. Bere emaztea eta hiru seme-alabekin bizi da.

- Zer duzu Li? Aurpegi goibela daukazu.- esan dio emazteak.
- Ba... Ez naiz oso ziur. Sukarra daukadala esango nuke; izan ere, hotz naiz eta buruko mina daukat. Ohean sartuko naizela uste dut. Ea bihar hobeki esnatzen naizen eta lan egiteko ongi nagoen.- dio Li-k.

Li ezagutu nuen lehendabiziko pertsonetakoa izan da. Aurrerago, ehundaka eta milaka ezagutu ditut, alabaina, asko nire beldur izan dira eta beste batzuk ez ditut berriro ikusi. Herri horretako jendearen gehiengoa ezagutu dut eta ohartu gabe, beste tokietara eraman naute. Hala ere, tokiak bisitatzen ditudan heinean, jendearen izua eta kezka geroz eta handiagoak direla ikusi dut.

Egun hauetan milaka pertsonekin egin dut topo. Eta horien artean Fiorella Baldassarri izena duen adineko emakume bat ezagutu dut, 83 urtekoa zehazki, baina honi, zerbait ezberdina nabaritu diot; bere herrira iritsi nintzenean, berak jada ezagutzen ninduela esango nuke.





1. SARIA "NI NAIZ"

Amaiur Tejedor Lasa
Biurdana B.H.I.

Izututa dago. Denbora daramat berarekin eta ez dakit zergatik, gaixo jarri da. Arnas estuka dabil.

- Maitea, gaizki sentitzen naizela uste dut. -dio Fiorellak totelka.
- Lasai egon zaitez. Medikuarengana joango gara? -galdetu du emakumearen senarrak.
- Bai, agian hobe izango da, mediku bat ondoan badaukat.

Momentu honetan, kezkak eta beldurrak Fiorellaren gorputz osoa astindu dute. Ez du inoiz horrelako sentsazio txarrik sentitu eta zerbait larria izango dela pentsatzeak kezkatu egiten du. Ordu batzuk pasata, ospitalerantz abiatu da bere senarrarekin.

- Egun on, Fiorella. Beno, zergatik etorri zara? Zer duzu?-galdetu dio medikuak.
- Bada... Atzo gauean gaizki sentitzen hasi nintzen eta goizean okerrago nengoela nabaritu dut. Eztula daukat, buruko mina izatera ere iritsi naiz eta sukarra daukadala ere sentitzen dut. - erantzun du.
- Ados. Ba, orain proba batzuk egingo dizkizugu eta ikusiko dugu. -medikuak kezka aurpegia dauka, Fiorellari gertatzen zaiona zehazki ez jakin arren.

Fiorellak ez daki zer pentsatu; kezkatuta dago baina aldi berean, ez du gertatzen ari zaiona ulertzen.



Fiorella, haren senarra eta medikua gela arraro batera joan dira. Sartzean, Fiorella are eta izu handiagoa sentitzen ari zela nabaritu du. Bi mediku daude. Berari begira. Kezka aurpegia dutela esango nuke, hala eta guztiz ere, mundua gainean erortzen zaizula uste duzunean pentsamendu negatiboa izateko joera izaten da.

- Tira, orain zure biriken egoera ikusiko dizugu hainbat erradiografia eginez. Lehenago egin dizudan errebisio txiki hori eta gero, arnasteko zailtasunak dituzula ikusi dugu. Lasai egon zaitez. Orain ondoan duzun ohe honetan etzaten bazara, asko eskertuko nizuke.- esan dio medikuak.
- Ados.

Fiorella ohean etzan da. Medikua gelatik joan egin da biriketan izan dezakeena ikusteko.

Urduritasuna. Beldurra. Egoneza. Antsietatea. Hori da momentu honetan emakumeak sentitzen duen guztia. Senarra, Mark, kanpoan dago. Berak ere ez du bere emazteari gerta dakiokeena ulertzen ezta sinisten ere. Mark senarrari ezer esan ez dion arren, berak inoiz baino okerrago ikusi du Fiorella. Aurpegi goibel eta kopetiluna ikusi badio ere, estaltzen saiatu da.

Hamar minutu inguru pasa ondoren, Fiorella gelatik atera da. Sartu eta atera den arte pasatu den denbora bukaezina iruditu zaio. Orain, medikuak esango dionaren beldur, bere gelara sartu da senarrarekin batera.



- Beno Fiorella. Emaizak ditugu eta asko sentitzen dut, baina gaixotasun larri bat daukazula ikusi dugu. Zure arnasteko gaitasuna ahuldu egin du eta ondorioz, hemen geratu beharko duzu hobetzen ari zarela ikusten dugun arte. -aitortu du medikuak pena handiz.

Fiorellak ez daki zer sentitu ezta zer pentsatu ere. Sentimendu gehiegi ditu zehazki zer sentitzen duen jakiteko. Senarra ere, aho bete hortz gelditu da. Bere bizitza guztiz aldatu egin da egun batetik bestera.

Momentu honetatik aurrera Fiorella ospitalean ingresaturik geldituko dela ikusi dut. Egoera larrian dago eta medikuak senarrari egun gutxi gelditzen zaizkiola aitortu dio.

Mark barrutik ahulduta dago. Betidanik maite izan duen pertsona, mundu honetatik joan daitekela jakiteak izugarri usteldu du barnetik.

Fiorellak 3 egun daramatza jada ospitalean, eta senarrak ezin izan ditu egunak berarekin pasa kutsatu daitekeelako. Egoera guzti honek min handia eman dio Marki. Egunak urteak bezalakoak dira. Bere arima geroz eta txikiagoa dela nabaritzen hasi da eta udazkenean zuhaitz batetik erortzen den hosto gorri bat bezalakoa dela nabaritzen du. Penaz eta tristuraz itotzen ari dela sakelakoak jo du. Azkar hartu du eta ahots ezagun bat entzun du:





1. SARIA "NI NAIZ"

Amaiur Tejedor Lasa
Biurdana B.H.I.

- Egun on, Mark. Ospitaletik deitzen dizut. Fiorellak ingresaturik egon den egun hauetan ez du hobera egin eta benetan, asko sentitzen dut baina Fiorella joan egin da.

Marken bihotza erditik apurtu egin da. Bere begi urdinetan malkoak pilatu dira, itsasoan olatuek elkarren aurka talka egiten duten antzera. Malkoek aurpegiko azala busti egin dute kokotsera iritsi eta lurreko alfonbrara tanta bat iritsi den arte. Ez daki zer pentsatu. Bere emaztea galdu egin du eta ezin izan ditu bere bizitzako azkeneko minutuak berarekin igaro, eskua emanaz, begietara begiratuz eta azala azken aldiz laztanduz.

Bizitako egoera latzak betiko markatu du bere bizitza. Haizeak eramaten dituen hosto lehorren zati bat balitz bezala sentitzen da. Apurtuta. Suntsituta. Garaituta.

Jakin dut. Jakin dut zer egin dudan. Lehen ez nekien. Orain bai. Fiorella Baldassarriren gorputza geldiarazi dut eta Mark Berryren bihotza apurtu egin dut. Ni naiz. Ni naiz hori guztia egiten duena. Horretarako jaio naiz eta horregatik nago hemen; pertsonak barrutik garaitzeko eta bizitzak nirekin eramateko ia konturatu gabe. Mundua hunkitu, gelditu eta guztiz aldatu dut. Ezerk ez du berdin jarraituko. Orain badakit nor naizen. Ni. Koronabirusa.

RUMANI



2. SARIA "OSPEAREN PASEALEKUA"

Edurne Pascual Uharte
Jaso ikastola

OSPEAREN PASEALEKUA

Pi-pi! Jo egin du iratzargailuak. Kafea sukaldean zain dut eta oraindik ere txoriak ez dira kantuan hasi, horrek esan nahi du denboraz ongi nabilela. Gosaldu bezain laster, dutxa fresko bat hartu eta bulegora joateko autobusaren bila joan naiz. Rosa Mari ikusi dut Kandela etorbidetik Txuli jostaria paseatzen. Hor doa, gerezi koloreko ezpain margo ikusgarriarekin eta bere ile kizkur distiratsuarekin espaloi guztia betetzen. Hain eskandalagarri beti ... Bera bai harro. Ia larunbat guztietan goizeko hamarretan topo egiten dugu igogailuan. Zer esan asko ematen dute topaketa horiek. Handiustekoa den arren, demostratu dit bihotz handi-handiko emakumea dela. Irribarre bat eskaini diogu elkarri.

Iritsi naiz autobus geltokira. Minutu bat baino ez dut itxoin autobusa iritsi den arte. Juan Luis agurtu dut, autobuseko gidaria, bolanteari tinko eutsita. Kandela etorbidetik bulegora, eta bulegotik Kandela etorbidera milaka bidaia egin ditugu elkarrekin. Betidanik gizon lotsatia eta beldurtia izan da. Egun batean bi gazte autobusera igo eta arrazoirik gabe jipoitu egin zuten, geroztik serioagoa da.

Borroka bat egon zen. Bi umemoko haiek, esku ezkerren hatz bat hautsi zioten. Juanluk defendatzen saiatu arren, ez zuen ezer lortu. Hainbeste kolpeen ondorioz, ia ia koman geratu zen. Orain, bakarrik konfiantza duen pertsoneri agurtzen die normalean.

Agurtu ondoren, txartelarekin ordaindu eta eseri naiz, bigarren ilaran ezkerrean. Beti han esertzen naizenez jada nire bainila usaina hartu du tokiak. Leihotik begira nago eta hogeitaka urteko gazte bat ikusi dut. Koadrodun alkandora darama praka gris ilun batzuekin konbinatuz. Presa daukala dirudi. Poliziak jarraituko ote du, zerbait lapurtu duelako? Batek daki.

IPUIN



BIGARREN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

2. SARIA "OSPEAREN PASEALEKUA"

Edurne Pascual Uharte
Jaso ikastola

“Hurrengo geldialdia, Iturri plaza” entzun da megafoniatik. Egunero bezala, 80 urte inguruko betaurrekodun gizona jaitsi egin da. “Pi-pi”, agureak botoia sakatu eta Juan Luisek berehala arrapala jarri du jaitsi dadin. Irribar handi batez eskerrak eman dizkio adineko gizonak. Musika pixka bat entzuteko momentua iritsi da. Aurikularrak hartu eta Ken Zazpi taldearen abestiak entzuten hasi naiz. Txikitatik entzun dut. Abesti guztiak mundialak dira, hala ere, “Zenbat Min” deiturikoa gehien gustatzen zaidana da, helarazi nahi duen mezu sakonak nire amarengan pentsarazten dit -eta. Izan ere, oso gustuko zuen kanta hau eta egunero abesten genuen.

Jada gutxi geratzen zait bulegora iristeko. Ahaztu baino lehen, aktoreen formazioan lan egiten dugu bulegoan. Guregana aktore bihurtu nahi duten pertsonak etortzen dira, eta gu haien bidea zehazten saiatzen gara. Dagoeneko, hamaika urte daramatzat han lan egiten. Hasiera-hasieratik Elixek eta biok oso ongi konpondu izan gara. Primerako neska da, jatorra, alaia, txukuna... Erlazio bikaina daukagu. Lanera joateko bidaiak hobeak dira berari esker, izan ere, Pedro Axular etorbidean igotzen da autobusera eta ratutxo zoragarriak ematen ditugu hitz egiten. Hara! Hor dator: puntutxodun soineko ilun batekin eta borobil-borobilak diren betaurrekoak daramatza kiwiak baino berdeagoak diren begiekin konbinatuz. Elixek “Mentxu” kafetegian erositako madalenatxo batzuk ekarri ditu. Gustura jan ditugu.

Jadanik hogei minutu daramatzat autobusean. Gaur normalean baino askoz ere luzeagoa egiten ari zait joanaldia ... Abandoibarra etorbidean gaude oraindik, auto-ilara handiak sortzen ari dira. Eskerrak bakarrik bi geldialdi falta zaizkigula.

Juan Luisek azeleratzailea zapaldu du nahi gabe. A ze frenazoa! Borrokarena gertatu zenetik, ez da betiko gidari aparta ...

Elixek eta biok hizketan hasi gara kaletik pasatzen den jendeari buruz. Neskatxa altu bat ikusi dugu, Louis Vuitton-eko zorro handi batekin, Gucci-ko gonaren azpitik hanka luze-luzeak ikusten zaizkiola. A zer emakume-puska... Seguraski txankamehe bat dela esan

IPUIN



BIGARREN HEZKUNTZAKO
1. ETA 2. MAILAK

2. SARIA

"OSPEAREN PASEALEKUA"

Edurne Pascual Uharte
Jaso ikastola

du Elixek. Nire ustez, aurreiritzi asko ditugu arropa garestiarekin janzten diren pertsonen inguruan ... Elixek arrazoia eman dit.

Denbora aurrera doa, soilik hamar minutu falta dira gure lanaldirako eta geldiadi bat falta zaigu autobusetik jaisteko. Horrek esan nahi du denboraz ondo gabiltzala.

Hara! Nire osaba Eñaut! Beti bezala urdin ilun koloreko jantzia soinean jarrita eta "Pilar Garralda Oinetakoak" dendan erositako ikatza bezain beltzak diren oinetakoekin. Nire osabarik kuttunena da. Txikia nintzenean paseo luze-luzeak egiten genituen txirrindularekin, ez nekizkien gauza pila erakutsi zizkidan: igeri egiten erakutsi zidan, hasieran zailtasun asko nituen, baina hari esker lortu nuen. Laburbilduz, bigarren aita bat bezalakoxea da Eñaut. Eskua astinduz agurtu nau, nik muxu bat bidali diot.

"Hurrengo geldialdia Ospearen Pasealekua" entzun da megafoniatik. Bai, egia da pasalekuaren izena bitxia dela ... Baina gure bulegoaren omenez jarri zioten izen hori, izan ere, pertsonak aktore bihurtzen ditugu eta oso ospetsuak egiten dira. Gezurra dirudien arren, George Clooney, Angelina Jolie eta Nicolas Cage besteak beste, guri esker bihurtu ziren aktore bikain eta famatuak.

"Pi-pi" botoia sakatu du Elixek. Juan Luisek atea ireki eta jator-jator agurtu gaitu. Jada autobusetik jaitsi gara. Begira, handik dator Jon Kortajarena. Txistu batekin deitu dut eta "Aio Sabiñe!" batekin erantzun dit. Bera bai atsegina ... Zeinen ongi irakasten diegu gure aktore preziatuei ...

Komik



KOMIKI




LEHEN HEZKUNTZAKO
5. ETA 6. MAILAK

1.SARIA "APOSTUA KOMUNEAN"

Uxue Fernández Sagüés
Hegoalde Ikastola

APOSTUA KOMUNEAN




KOMIKI



LEHEN HEZKUNTZAKO
5. ETA 6. MAILAK

2.SARIA "AMETSETAN"

Jesús Yong Ladrón Arana
Hegoalde Ikastola



KOMIKI





LEHEN HEZKUNTZAKO
5. ETA 6. MAILAK


3.SARIA "LOREEN BABESA"

Ainhoa Flamarique Urbina
Hegoalde Ikastola

LOREEN BABESA



Loreak elkartu ziren..



Lore handi bat egin zuten eta hitz egiten hasi
ziren motikari.





Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

